

EGIAZTAPENA BERRITZEKO BEHIN BETIKO TXOSTENA / INFORME DEFINITIVO DE RENOVACIÓN DE LA ACREDITACIÓN

TITULUAREN IZENDAPENA / DENOMINACIÓN DEL TÍTULO	MÁSTER UNIVERSITARIO EN MULTILINGÜISMO Y EDUCACIÓN/EUROPEAN MASTER IN MULTILINGUALISM AND EDUCATION
MEC ID KODEA / CÓDIGO MEC ID	4313028
UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD	UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
TXOSTENAREN DATA / FECHA DEL INFORME	24 de junio de 2021

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapena berritzeko deialdiaren epea ezartzen duen Hezkuntza Sailburuaren 2020ko urriaren 13ko Aginduaren laugarren xedapenean ezarritakoaren arabera (2020ko urriaren 30eko EHAA, 215. zk.), panelak unibertsitate bisita egin zuen 2020ko abenduaren 21ean Unibasq-eko "Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate Tituluen Egiaztapena Berritzeko Protokoloa"ren arabera. Panel honen osiera Unibasq-eko Zuzendariaren 2020ko urriaren 20ko Ebazpenaren eta 2020ko azaroaren 25eko Ebazpenaren bidez onartu zen.

Prozeduraren arabera, GIZARTE ETA LEGE-ZIENTZIETAKO Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeak, 2020ko azaroaren 9ko EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 11ko EBAZPENA, 2018ko uztailaren 4ko EBAZPENA, 2017ko abenduaren 13ko EBAZPENA bidez onetsitakoa, bisita-panelak egindako bisitaren txostena aztertu zuen, bai eta eskuragarri zegoen aurretiko informazio guztia ere, eta behin-behineko txostena sortu zuen. Txosten-proposamena jakinarazi ondoren, egoki iriztitako alegazioak egin zituen unibertsitateak.

Txosten horri alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Batzordeak EGIAZTAPENA BERRITZEKO ALDEKO TXOSTENA, eman dio MÁSTER UNIVERSITARIO EN MULTILINGÜISMO Y EDUCACIÓN/EUROPEAN MASTER IN MULTILINGUALISM AND EDUCATION Tituluari, ezarritako irizpide eta gidalerro bakoitzaren buruz egindako balorazioetan oinarrituta (jarraian erantsi da balorazio horiek betetzea).

Conforme a lo establecido en la Orden de 13 de octubre de 2020, del Consejero de Educación, por la que se establece el plazo de la convocatoria para la renovación de la acreditación de los títulos universitarios oficiales en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su disposición cuarta (BOPV Nº215, del 30 de octubre de 2020), se procedió a realizar la visita a la universidad del panel cuya composición fue aprobada por Resolución de 20 de octubre de 2020 y Resolución de 25 de noviembre de 2020 del Director de Unibasq, el día 21 de diciembre de 2020, de acuerdo con el "Protocolo para la renovación de la acreditación de los títulos universitarios del Sistema Universitario Vasco" de Unibasq.

De acuerdo con el procedimiento, el Comité de Evaluación de Titulaciones de CIENCIAS SOCIALES Y JURÍDICAS aprobado por RESOLUCIÓN de 9 de noviembre de 2020, RESOLUCIÓN de 11 de enero de 2019, RESOLUCIÓN de 4 de julio de 2018, RESOLUCIÓN de 13 de diciembre de 2017, analizó el informe de la visita elaborado por el panel de visita y toda la información previa disponible, generando el informe provisional de evaluación. Una vez notificada la propuesta de informe, la universidad realizó las alegaciones que consideró oportunas.

Una vez finalizado el periodo de alegaciones a dicho informe, el Comité otorga INFORME FAVORABLE A LA RENOVACIÓN DE LA ACREDITACIÓN, al MÁSTER UNIVERSITARIO EN MULTILINGÜISMO Y EDUCACIÓN/EUROPEAN MASTER IN MULTILINGUALISM AND EDUCATION, en base a las valoraciones realizadas sobre cada uno de los criterios y directrices establecidos cuyo cumplimiento se adjunta a continuación.

1go Irizpidea. ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA / Criterio 1. ORGANIZACIÓN Y DESARROLLO

Estandarra: Prestakuntza programa eguneratua dago eta onartutako Egiatzapen-memorian edota gerora memorian egindako aldaketetan ezarritako baldintzekin bat ezarri da.

Estándar: El programa formativo está actualizado y se ha implantado de acuerdo a las condiciones establecidas en la memoria verificada y/o sus posteriores modificaciones.

1.1

Ikasketa planaren ezarpena eta programaren antolamendua tituluaren egiaztapen memorian edota geroago memorian egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekin koherenteak dira.

La implantación del plan de estudios y la organización del programa son coherentes con el perfil de competencias y objetivos del título recogidos en la memoria de verificación y/o sus posteriores modificaciones.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterreko ikasketa-plana 2011an egiaztatu zen, Groningeko Unibertsitatearen eta UVP/EHUren arteko unibertsitate arteko titulu gisa. Ikasketa-planak aldaketak izan ditu gerora. Aldaketa nabarmenena ikasketa-planaren egiturari dagokio; izan ere, 2014an egindako aldaketan, 120 ECTS izatetik 60 ECTS izatera igaro zen, eta unibertsitate arteko eta nazioarteko titulua izateari eutsi zion.

Proposaturiko helburuak, moduluak, edukiak eta irakasgaiak koherenteak dira ikasleak menderatu behar dituzten gaitasunekin, hau da, ikasketa planaren bitartez, ikasleak eleantzasun hezkuntza esparrua ezagutzeko, ikertzeko eta bertan profesionalki aritzeko edukiera nahikoa bereganatzen du. Era berean, ikasgaien sekuentziarioa, proposaturiko kompetentziak kontuan harturik, egokia da.

Bestalde, taldeen tamaina egokia da. Urtero, 25 plaza eskaintzen dira eta espainiar estatuko, Europa barruko eta kanpoko ikasleak matrikulatzen dira, 20 plaza inguru betez urtero. Taldeen tamaina aproposa da ikasgai bakoitzaren formakuntza jarduerak garatzeko. Honek aurreikusitako ikaskuntzaren emaitzak lortzea eta etengabeko jarraipena egitea ahalbidetzen du.

Hala ere, ez dago tituluaren unibertsitate-arteko izaera justifikatzen duen ebidentziarik. Bi unibertsitateen arteko harremana ahulduz joan da, eta ez da lankidetzaren dinamikarik hautematen, memorian zehaztutako unibertsitate arteko eta nazioarteko tituluaren profilarekin koherentziarik ez dagoela iritzita. Unibertsitateak, alegazioen fasean, adierazi du Groningeko Unibertsitatearekiko harremana ahuldu egin dela sailean izandako aldaketen, erretiroen eta irakasleen aldaketen ondorioz, eta, horregatik, Unibasq-ek adierazitakoa onartzen duela, eta Groningeko Unibertsitatearekiko harremanari buruzko erreferentziak webgunetik eta memoriatik kenduko dituela. Hala ere, Unibertsitateak adierazi du unibertsitate horrekin lankidetzan jarraituko duela, orain arte bezala. Horrela, masterreko irakasle batek hitzaldi bat ematen jarraituko du urtero bezala Groningeko Unibertsitatean, eta, era berean, Groningeko Unibertsitateko irakasleek Donostia Lectures-en, masterraren hitzaldi zikloan, parte hartzen jarraituko dute. Halaber, bi unibertsitateen arteko lankidetzaren sustatzen saiatuko direla adierazi dute.

Unibertsitateak adierazi du abian jarri direla memorian egin beharreko aldaketak egiteko mekanismoak. Tituluaren egiaztapena berritzeareko aldeko txostena ematen da, Unibertsitateak aldaketa hori aurkezteko zain geratuz. Alderdi horren jarraipen berezia egingo da.

NAHITAEZ BETE BEHARREKO ALDERDIA:

Egiaztatutako memorian aldaketak egin, eta Unibasq-i jakinarazi, Unibertsitateak aurkeztutako alegazioetan egiteko konpromisoa hartu duen bezala.

1.2.

Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

El perfil de egreso definido (y su despliegue en el plan de estudios) mantiene su relevancia y está actualizado según los requisitos de su ámbito académico, científico o profesional.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterraren egreso-profila bat dator tituluan zehar garatzen diren gaitasunekin. Ikasketa plana ikerketari begira antolatzen da, eta horregatik eskaintzen diren edukiak eta ezagutzak ildo hauetatik doaz. Beste egresatu profilak eta lan irtenbideak ez dira kontutan hartzen.

Master honetan onartze-irizpideak urtero berritzen dira.

GOMENDIOAK

Onartze-irizpideak masterrak garatu nahi dituen gaitasunen arabera finkatzea gomendatzen da.

Kanpoko agenteen informazioa biltzea gomendatzen da, egreso-profilaren garrantzia eta eguneratzea egiaztatzeko.

1.3.

Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak (irakasgai ezberdinen artean artikulazio horizontal eta bertikala) biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitez lortzea ziurtatuz.

El título cuenta con mecanismos de coordinación docente (articulación horizontal y vertical entre las diferentes materias/ asignaturas) que permiten tanto una adecuada asignación de la carga de trabajo del alumando como una adecuada planificación temporal, asegurando la adquisición de los resultados de aprendizaje.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (HEFAn) irakasten den masterra da. Hori dela eta, HEFAk eraikita duen Kalitatea Bermatzeko Sistemaren jarraibideak eta koordinazio mekanismo, egiturak eta araudiak martxan jarrita ditu.

Koordinazioaren arduraduna Komisio Akademikoa da. Ez da antzeman koordinazio-arazorik, baina prozedurak zehatzagoak izan beharko lirateke eta alderdi horri buruzko ebidentziak aurkeztu beharko dira unibertsitateak aurkeztuko dituen hurrengo txostenetan.

Unibertsitate arteko Masterra izanik, ez dago jasota koordinazioaz arduratuko den Unibertsitate arteko Batzorderik.

GOMENDIOA:

Ebaluazio-prozesuetan koordinazio-mekanismoen erregistroa eta justifikazioa ziurtatuko duten prozedurak ezartzea gomendatzen da.

1.4.

Ezarritako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarbide-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta berauek aplikatzean egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.

Los criterios de admisión aplicados permiten que el alumnado tenga el perfil de ingreso adecuado para iniciar estos estudios y en su aplicación se respeta el número de plazas ofertadas en la memoria verificada.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Sarbide profila urtero berrikusten da eta ikasketak hasiko dituzten ikasleen arabera ezartzen da. Dena den, arrakastatasari erreparatuz, esan daiteke azken urteetan aritu diren ikasleen profila egokia dela. Hala ere, tituluan sartzeko irizpideak zehaztea gomendatzen da.

Bestalde, memoriak (4.2.2.3 atalean) ezartzen du ingelesa B2 mailan (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua) jakitea betekizun bat dela Master hau egiteko, eta ingeleseko proba espezifiko bat egingo dela hizkuntza horretan titulazio edo esperientzia nahikorik ez izateagatik, egokitzat jotzen den kasuetan. Ezin izan da egiaztatu irizpide hori aplikatu denik sarbide-prozesuan. Alegazioen fasean, Unibertsitateak adierazi du ikasleak masterrean onartu aurretik CVak berrikusten direla ingelesarekin duten esperientzia egiaztatzeko (graduaren ingelesez egindako kredituak, ingeleseko ikasketen espezialitatea, Lehen Hezkuntzako Gradua ingeleseko espezialitatearekin, ikastaroak atzerriko unibertsitateetan) edo titulazioa (Cambridge, Hizkuntza Eskola Ofiziala). Informazio hori ez badago CVan jasota, eskatu egiten zaie, eta ez badute, hizkuntza-proba egin behar dute ikasketak egin ahal izateko. Azken urteotan ez da halakorik gertatu, eta, beraz, Unibertsitateak ez die hizkuntza-proba egin behar izan matrikula berriko ikasleei. Jatorrizko hizkuntza ingelesa duten atzerritik datozen ikasleen kasuan, ez da inolako frogagiririk eskatzen. Unibertsitateak, ebidentzia gisa, 2018/2019 ikasturtean matrikulatutako ikasleen zerrenda aurkeztu du. Zerrenda horretan, zein ingeles-maila duten adierazten da. Alderdi horren jarraipen berezia egingo da.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrak 25 plaza eskaintzen ditu urtero, eta 20 baino gehiago matrikula berri sartzeko dira. Azken urtean izan ezik, matrikulazioak bera egin duelarik eta 17 matrikula egon dira.

GOMENDIOA:

Hautaketa-prozesuan ebaluatu beharreko alderdi bakoitzeko ebaluazio-irizpideak zehaztea gomendatzen da.

Plaza guztiak betetzeko, tituluaren zabalkunde handiagoa egitea gomendatzen da.

1.5.

Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, onespena, etab ...) era egokian burutzen da eta irakaskuntza etekin adierazle baliok hobetzea ahalbidetzen du.

La aplicación de las diferentes normativas académicas se realiza de manera adecuada y permite mejorar los valores de los indicadores de rendimiento académico.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Araudi akademikoaren aplikazioa modu egokian egiten da eta errendimendu akademikoaren adierazle baliok hobetzea ahalbidetzen du.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrak ikasketetan jarraitzeko arautegia eta kreditu aitortuen arautegia, modu zehatzean, jasotzen du bere Akreditazio oroitidazkian. Era berean, Fakultatearen weborrian aurki daitezke argitaratuta gai hauen inguruko informazioak.

Kreditu aitortuei dagokionez, azken lau urteotan 11 ikasgai baliozkotu zaizkie 2 ikasleei (2016/17 eta 2017/2018 ikasturteetan), hauek beste master batzuetan ikasketak osatu baitzituzten.

2 Irizpidea. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA / Criterio 2. INFORMACIÓN Y TRANSPARENCIA

Estandarra: Erakundeak kalitatea bermatzen duten prozesuen eta programen ezaugarriak interes taldeei modu egokian komunikatzeko mekanismoak ditu.

Estándar: La institución dispone de mecanismos para comunicar de manera adecuada a todos los grupos de interés las características del programa y de los procesos que garantizan su calidad.

2.1.

Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute, bai jarraipen-bai egiaztapen prozesuei buruzkoa ere.

Los responsables del título publican información adecuada y actualizada sobre las características del programa formativo, su desarrollo y sus resultados, tanto de seguimiento como de acreditación.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterraren arduradunek informazio argia eta eguneratua publikatzen dute Internet bidez. Alde batetik, HEFAren weborri orokorrean fakultatearen eta UPV/EHUaren inguruko informazioak jasotzen dira. Beste alde batetik, tituluak berak, weborri bereizi bat dauka, non tituluaren informazio zehatzak igotzen dira.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza tituluaren webguneak Kalitate atal bereizi bat dauka. Bertan, egiaztapen, jarraipen era akreditazio prozesuen informazio argia argitaratzen da. Hau da, bai Egiaztapena eta aldaketen txostenak publikatuta daude, bai zentroak berak, 2011tik 2019 barne, egindako autotxostenak, bai 2015 etako Akreditazio dokumentua eta ziurtapenak. Hortaz, kalitatearekin erlazionatuta dauden tituluaren dokumentu nabarmenenak weborrian aurki ditzakegu. Era berean, araudiak igota daude, masterraren batzorde akademikoko arduradunen izenak agertzen dira, RUCT esteka erantsita dago eta HEFAren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren informazioa jotzeko linka jarrita dago atal honetan.

Tituluaren adierazle nagusiak eskuragarriago egon beharko lirateke.

Informazio guztia euskaraz, gazteleraz eta ingelesez aurki daiteke.

GOMENDIOA:

Titulazioko irakasleen curriculum vitae laburtu guztiak tituluaren webgunean sartzeari gomendatzen da, irakasleek parte hartzen duten ikerketa-ildoak barne.

Gomendatzen da tituluaren adierazleak erraz eskuratzeko eta zuzenean ikusteko modukoak izatea titulazioaren webgunetik.

Gomendatzen da mekanismoak ezartzea, titulazioaren web-orriaren edukia osoa dela bermatzeko, informazio garrantzitsua barne, gaur egun ikastetxearen web-orrian soilik kontsulta daitekeena. Horregatik, komeni da eduki horiek lotuta egotea, ikasleei kontsulta errazteko.

2.2.

Tituluan matrikulatutako ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

La información necesaria para la toma de decisiones del futuro alumnado y otros agentes de interés del sistema universitario de ámbito nacional e internacional es fácilmente accesible.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterraren weborria talde guztientzako informazio eguneratua jasotzen du.

Alde batetik, azalean, ondoko hauek zehazten dira: ezagutza arloa, fakultatearen izena, campusa, masterraren iraupena, lortu behar diren kredituak, hizkuntzak, gutxienezko sarbide nota, eskaintzen diren plaza kopurua eta harremanetan jartzeko tituluaren arduradunaren izena eta kontaktua. Atal horretan ere, Eleaniztasuna eta Hezkuntza tituluaren deskribapen sarrera egiten da, non ikasketetan deskribapena azaltzen da, irteera profesionalak aurkezten dira, masterra amaitu ondoren ikasleek barneratuko dituzten gaitasunak zehazten dira eta sarrera profila deskribatzen da.

Beste alde batetik, matrikulazio prozesuaren inguruko informazioa eransten da: sartzeko erak (baremazioa zehaztuta:

espedientea: % 40, Bestelakoak: % 30 eta CV % 30), onartua izateko prozesua, sartzeko lehentasunezko titulazioak, masterraren prezioak, aurretiko izen-ematea eta matrikulazio epeak, datak, tokia eta dokumentazioa (fakultateak jartzen dituen irizpideak) eta bekak eta laguntzak.

Masterraren ikerketa ildo garrantzitsuenak zerrendatzen dira.

Titulua egin ahal izateko, ingeleseko B2 maila ziurtatu behar dela adierazi behar da tituluaren webgunean. Alegazioen fasean, Unibertsitateak adierazi du informazio hori Programa/Metodologia atalean dagoela eskuragarri. Gainera, informazio hori Matrikula atalean ere sartzeko eskatu da. Egiaztatu ahal izan denez, Unibertsitateak adierazten duen bezala, Programa/Metodologia atalean honako hau adierazten da: "Derrigorrezko ikastaroak ingelesez izango dira eta, beraz, ikasleek B2 edo" Independent user "maila izan behar dute ingelesez". Gainera, aurkeztutako ebidentzietan adierazten da Matrikula atalean honako hau jasoko dela: "Masterrean matrikulatu ahal izateko, beharrezkoa da ingeles-domeinua izatea (independent user maila edo B2 maila). Hori frogatu daiteke unibertsitatean ingelesezko ikastaroak gainditzen badira edo tituluaren batekin. Ezin bada probarik aurkeztu, azterketa bat egin ahal izango da". Alderdi horren jarraipena egingo da.

GOMENDIOA:

Desgaitasun baten ondoriozko behar espezifikoekin sar daitezkeen ikasleei zuzendutako informazioa sartu behar da, ikasle horientzako laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuei buruzkoa, bai eta curriculum-egokitzapenen existentziari buruzkoa ere.

2.3.

Tituluan matrikulatutako ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

El alumnado tiene acceso en el momento oportuno a la mayoría de la información relevante del plan de estudios y de los recursos de aprendizaje previstos.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrean matrikulatzen diren ikasleek ikasketa planaren informazioa tituluaren webgunean eskuragarri dute. Weborriak ikasketa plana taula batean aurkezten du, irakasgai bakoitzeko zenbat kreditu bete behar diren, zein kurtsotan ematen den eta zer motatako irakasgaia den zehazten da (nahitaezkoa, hautazkoa, oinarrizkoa, etab.).

Aldi berean, weborri honetan, irakasgai bakoitzaren gida aurki daiteke. Irakasgai bakoitzeko ondoko informazioa aurkezten da: zenbat kredituko irakasgaia den, ze hizkuntzatan irakasten den (kasu honetan, derrigorrezko gaiak 12 ECT dituzten bi irakasgaiak ingelesez soilik eskaintzen dira. Besteak, bai, euskaraz, ingelesez ala gazteleraz aukera ditzakete ikasleek), irakasgaiaren kodea, maila, ikasturtea, irakasgaiaren zehar garatu beharreko gaitasunak, garatuko den metodologia, irakasleen izena eta kontaktua, ebaluazio sistemak, bibliografia (oinarrizkoa, gehiago sakontzekoa, web helbideak, aldizkariak), irakaskuntza motak, irakasgaiaren testuingurua, deialdiak eta irakasgai zerrenda. |

Hala ere, bikaintasunaren bidean, hiru gako ematea merezi du: a) irakaskuntza gida guztiak hiru hizkuntzataraz itzuli, izan ere, aztertu diren gida batzuetan bi hizkuntza nahasten dira eta homogeneousatu behar direla uste da; b) Gidetan hiruhilabetea zehaztea gomendatzen da; eta, c) Gida batzuetan irakasgai-zerrendaren atalean informazio gehiago jaso eta edukiak deskribatzea gomendatzen da.

Kanpo praktiken inguruan hitzarmenak sinatuta dituzten erakunde laguntzaileen zerrenda aurkezten dituzte weborrian.

Master Amaierako Lanaren inguruko informazioa egokia eta nahikoa da. Irakaskuntza gida eskuragarri dago atal honetan.

Fakultateko mugikortasun programak eta azterketa daten informazioari dagokionez, nahikoa, argia eta egokia dela egiaztatzen da. Egutegia, aldiz, gaurkotzea gomendatzen da, 2019/2020koa da.

Tituluaren weborrian Masterrean parte hartzen duten irakasleen informazio gehiago faltan botatzen dela esan beharra dago. Webguneak irakasle bakoitzeko: tutoretza orduak eta eurekin harremanetan jartzeko korreoa jasotzen du, eta irakasle batzuek euren publikazioak eta ikerketa ibilbidea deskribatzen dute. Baina, kasu askotan ez dira ez curriculumak agertzen, ez proiektu azpimarragarrienak (batzuek bai izendatzen dituztela).

3 Irizpidea. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA (KBS) / Criterio 3. SISTEMA DE GARANTÍA DE CALIDAD (SGC)

Estandarra: Erakundeak modu formalean ezarritako Kalitatearen Bermerako Sistema bat du zeinak tituluaren etengabeko hobekuntza eta kalitatea ziurtatzen duen, modu eraginkor batean

Estándar: La institución dispone de un Sistema de Garantía de la Calidad formalmente establecido e implementado que asegure, de forma eficaz, la mejora continua del título.

3.1.

KBS-k, implementatua eta aldizka berrikusia, informazioaren etengabeko analisia eta jasoera eta tituluaren kudeaketa eraginkor batentzako emaitza garrantzitsuenak bermatzen ditu, batez ere ikasketa emaitzak eta interes taldeen asetasuna.

El SGC implementado y revisado periódicamente garantiza la recogida y análisis continuo de información y de los resultados relevantes para la gestión eficaz de las titulaciones, en especial los resultados de aprendizaje y la satisfacción de los grupos de interés.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Fakultateak Kalitatea Bermatzeko Sistema bat du, 2019ko otsailaren 27ko diseinu-txosten positiboarekin. Pedagogia, Filosofia eta Antropologia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntza graduak ematen ditu (2015ean berritutako akreditazioarekin eta ikasturte honetan egindako bisiten ondoren txosten berriaren zain), baita zenbait unibertsitate-master ere. 2018/10/29an eguneratutako Kalitate Eskuliburu bat du, UPV/EHUren ohiko jarraibideei jarraitzen diena, bai eta Urteko Kudeaketa Txosten bat ere. Azken bertsioa 2017/18 ikasturtekoa da, eta 2019/02/18an onartu zen.

Fakultatean ezarritako KKSak hainbat mekanismo ditu ematen dituen titulazio ofizialak kudeatzeko erabiltzen duen informazioa biltzeko, Urteko Kudeaketa Txostenean egiaztatzen den bezala. Txosten horretan, aurreko ikasturtean egindako ekintzak eta oraingo ikasturtean lortutako emaitzak aztertzen dira, eta hurrengo ikasturtean egin beharreko hobekuntza-ekintzak planteatzen dira, kalitate-sistemaren eta titulazio ofizialen azterketatik datozenak kontuan hartuta. Zehazki, KKSak hainbat prozedura ditu: 2.1 Ikasleen arreta, 2.2. Sarbidea eta matrikulazioa, 3.1. Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena, 3.3, 3.4 eta 3.5 mugikortasun-praktika eta -programei buruzkoak, 4.1 eta 4.2 irakasle eta ikertzaileen eta AZPkoen kudeaketari buruzkoak, 4.7. Baliabide materialak kudeatzea eta lehen aipatutako 5.1etik 5.4ra ebaluazioari eta hobekuntzari buruzkoak.

Dokumentu horiek, beren adierazle eta erregistroekin eta titulazioak kudeatzeko behar den informazioa erregistratzen eta aurkezten duen UNIKUDE aplikazio informatikoarekin, bermatzen dute titulazioak kudeatzeko behar den informazioa biltzea eta tratatzea.

Gogobetetzeari dagokionez, honako ohar hauek egin dira:

- Titulu honetarako gogobetetze-inkesta espezifikokoak interes-talde guztiei sistematikoki egitea gomendatzen da.
- Gomendatzen da tituluaren irakaskuntzari buruzko informazio bereizia ematea, jarraibide hori behar bezala baloratu ahal izateko.

3.2.

Implementatutako KBS-k tituluaren jarraipen, aldakuntza eta egiaztapen prozesua errazten du eta bere etengabeko hobekuntza bermatzen du datu objektiboan analisiez gero.

El SGC implementado facilita el proceso de seguimiento, modificación y acreditación del título y garantiza su mejora

continua a partir del análisis de datos objetivos.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

El SGC cuenta con procesos implementados para la gestión del proceso de seguimiento, modificación y acreditación del título y garantiza la mejora continua a partir del análisis de datos objetivos.

Fakultatean ezarritako KKS, eskuliburutik ondorioztatzen denez, bost prozesu ditu oro har (Plangintza, Irakasleen Arreta eta Orientazioa, Irakaskuntzaren Koordinazioa eta Garapena, Giza Baliabideen eta Zerbitzuen Kudeaketa, Ebaluazioa eta Hobekuntza, Komunikazioa eta Gizarte Erantzukizuna), eta prozedura bidez hedatzen dira. Zehazki, honako hauek ditu: 1.4 – Titulazioen plangintza, 1.5 – Sarrera eta irteerako profilak, 1.6 – Titulazioen etetea, 5.1 Titulazioaren eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza, 5.2 – Iradokizunen eta kexen kudeaketa, 5.3 – Irakasleen irakaskuntza-ebaluazioa, eta 5.4. Kalitatea bermatzeko barne-sistemaren ezarpenaren barne-ebaluazioa. Prozedura horiekin, gainerakoekin batera, esan daiteke haien aplikazioak VSMA zikloa betetzea bermatzen duela.

Dokumentu horiek argi eta garbi ezarrita daude, EHUK egindako fitxa bati jarraituz, eta, besteak beste, honako hauek adierazten dira: helburua, parte-hartzaileak, erantzukizunak, etapak (fluxu-diagrama), adierazleak eta lortu eta artxibatu beharreko ebidentziak.

Prozesu horiek behar bezala ezarrita daudela eta eraginkorrak direla ulertu behar da; izan ere, Fakultateak gradu guztiak ditu akreditazio berrituarekin, eta ikastetxea hobetzeko plan bat egiten du urtero.

3.3.

Implementatutako KBS-k ebaluazioa errazten eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea hobetzen dituzten prozedurak ditu.

El SIGC implementado dispone de procedimientos que facilitan la evaluación y mejora de la calidad del proceso de enseñanza-aprendizaje.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Gaur egungo Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea 2016an sortu zen, EHUKo Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolak eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bat eginda.

Fakultatea sortzeko eta Kalitate Eskuliburua (2018) argitaratzeko datak kontuan hartuta, pentsa daiteke ez dela denborarik egon Sistemaren berrikuspen sistematikoak egiteko. Hala ere, 5. prozesuan (Ebaluazioa eta hobekuntza), Sistema berrikustea planteatzen da, titulazioei eta prozesu eta prozedura guztiei buruzko txostena eginez. Txosten horrek Fakultateko hobekuntza-plana dakar.

Zehazki, 5.4 (Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren ezarpenaren barne-ebaluazioa. Kudeaketa-sistema) prozeduraren helburua da KKS modu globalean ebaluatzea eta berrikustea (prozesuen dokumentazioa, erregistroak, berrikuspen-txostenak, etab.), barne-ebaluazioaren bidez, haren abiaraztea eta ezarpena hobetzeko, hobekuntza-plan bat sortuz, Urteko Kudeaketa Txostenari erantzen dena.

2 ALDERDIA: BALIABIDEAK / DIMENSIÓN 2: RECURSOS

4 Irizpidea. LANGILE AKADEMIKOAK / Criterio 4. PERSONAL ACADÉMICO

Estandarra: Irakaskuntza ematen duten langile akademikoaren kopurua nahikoa eta egokia da titularen ezaugarrien eta ikasle kopuruaren arabera.

Estándar: El personal académico que imparte docencia es suficiente y adecuado, de acuerdo con las características del título y el número de estudiantes.

4.1.

Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza eta ikerketa-kalitate egokia ere.

El personal académico del título reúne el nivel de cualificación académica requerido para el título y dispone de la adecuada experiencia profesional y calidad docente e investigadora.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterreko irakasleen ikerketa-esperientzia eta hezkuntza-arloko prestakuntza egokiak dira.

Bosturtekoei eta seiurtekoei buruzko datuak mantendu egin dira azken urteetan; 2015/2016an 17 seiurteko eta 50 bosturteko zituzten, eta 2018/2019 ikasturtean 18 seiurteko eta 49 bosturteko.

Irakasle guztien artean, 19 UPV/EHUkoak dira, %79k plaza elebiduna du, eta % 21ek plaza ez-elebiduna, ondorioz, irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan egiteko gaitasuna handia da. Gainera, UPV/EHUko irakasleen % 42k eta kanpoko irakasle guztiek eskolak ingelesez eman ahal izateko akreditazioa dute.

Aurretik esan bezala, Unibertsitateak adierazi du memorian aldaketak egin behar dituela Groningeneko Unibertsitateari buruzko erreferentziak kenduz. Aldaketa hau Unibasq-eri jakinarazi behar zaio.

GOMENDIOA:

Irakasleen ikerketa-jarduera, eta horren ebaluazioan parte hartzea, sustatzen jarraitzea gomendatzen da, plantillako seiurtekoen kopurua handitzeko.

Ingelesez irakasteko gaitasuna duten UPV/EHUko irakasleen ehunekoa handitzea gomendatzen da.

4.2.

Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.

El personal académico es suficiente y dispone de la dedicación adecuada para el desarrollo de sus funciones y atender al alumnado.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza tituluan parte hartzen duten irakasle kopurua egokia da ikasle kopurua kontuan hartuta.

Azken urteotan hiru irakasle gehitu dira masterra. 2015/2016 ikasturtean 15 irakasle ziren (horretako 8 emakumeak eta 7 gizon), urte batzuk beranduago, 2018/2019 ikasturtean 18 irakasle (13 emakume eta 5 gizon). Hauetako 18 doktore dira, beraz, masterrean egon behar den doktore ehunekoa guztiz betetzen dute.

4.3.

Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

El profesorado se actualiza de manera que pueda abordar, teniendo en cuenta las características del título, el proceso de enseñanza-aprendizaje de una manera adecuada.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Irakasleak eguneratu egiten dira, tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari egoki ekiteko moduan.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Masterrean irakasleen irakaskuntza eta eguneratze pedagogikoa hobetzeko ekimenak landu dira. Irakasleriak aukera du unibertsitateko irakasleen prestakuntzarako programetan parte hartzeko, UPV/EHUko HELAZek antolatzen dituenak, esaterako, DOITU (Zer hobeto dezaket nire irakaskuntzako planifikazioan?), FOPU (iraupen motzeko kurtsoak, irakaskuntzako gaitasunak eguneratzeko), IRAKER (irakasle berrientzako formakuntza), eta IRAKASBERRI (irakasle berrien harrera eta orientazioa).

Eguneratze honen ondorioz: batetik, irakaskuntzarako metodologia berrien azterketa jorratu da; eta bestetik, irakasgaietan zeharkako gaitasun moduan, teknologia berrien aplikazioa hezkuntzan landu egiten da.

DOCENTIAZ programan 6 irakaslek hartu dute parte.

GOMENDIOA:

DOCENTIAZ programan irakasleen parte-hartzea sustatzea gomendatzen da.

4.4.

(Hala badagokio) Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen eta jarraipen txostenetan zehaztutako gomendioak irakasleen kontratazioari eta haien irakaskuntzaeta ikerkuntza-kualifikazioa hobetzeari dagozkienak gauzatu ditu.

(En su caso) La universidad ha hecho efectivos los compromisos incluidos en la memoria de verificación y las recomendaciones definidas en los informes de verificación, autorización, en su caso, y seguimiento del título relativos a la contratación y mejora de la cualificación docente e investigadora del profesorado.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Ez dagokio.

5 Irizpidea. LAGUNTZA-LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK / Criterio 5. PERSONAL DE APOYO, RECURSOS MATERIALES Y SERVICIOS

Estandarra: Tituluaren garapenerako jarritako laguntza langileak, baliabide materialak eta zerbitzuak tituluaren modalitatearen, izaeraren, matrikulatutako ikasle kopuruaren eta hauek eskuratu beharreko gaitasunen arabera egokiak dira.

Estándar: El personal de apoyo, los recursos materiales y los servicios puestos a disposición del desarrollo del título son los adecuados en función de la naturaleza, modalidad del título, número de estudiantes matriculados y competencias a adquirir por los mismos.

5.1.

Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

El personal de apoyo que participa en las actividades formativas es suficiente y soporta adecuadamente la actividad docente del personal académico vinculado al título.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Nahiz eta Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrak ez duen espezifikoki esleitutako laguntza-langile bat prestakuntza jardueretan parte hartzen duena, AZP bat titulu honetaz arduratzen da eta nahikoa da. Hala ere, komenigarria izango litzateke ingelesaren ezagutza bultzatzea kanpotik ikasle asko etortzen direla kontutan izanda.

GOMENDIOA:

Komenigarria litzateke hizkuntza-gaitasunak (ingelesa) areagotzea laguntza-langileen artean, masterraren nazioarteko potentziala handitzeko.

5.2.

Baliabide materialak (gelak eta haien ekipamendua, lan egiteko eta ikasteko guneak, laborategiak, tailerrak, esperimentaziorako guneak, liburutegiak eta abar) ikasle kopuruari eta tituluan programatutako prestakuntza-ardueri egokituta daude.

Los recursos materiales (las aulas y su equipamiento, espacios de trabajo y estudio, laboratorios, talleres y espacios experimentales, bibliotecas, etc.) se adecuan al número de estudiantes y a las actividades formativas programadas en el título.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrarako baliabide materialak ikasle kopuruari egokituta daude. Fakultateak bi eraikin ditu erabilgarri. Bata, HEFA I, Tolosa hiribidean kokatuta dagoena. Bertan, esaterako, Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra bertan garatzen da, besteak beste. Bestea, HEFA II, Oñati Plazan kokatuta. Biak guztiz hornituta ekipamendu nahikoekin, ikasteko guneekin, liburutegiekin, gelek, etab.

HEFA Ia honako ikasgela eta aretoez dago hornituta:

- 140 plazako edukiera duten 3 ikasgela, tabike mugikor intsonorizatu baten bitartez erdibitu daitezkeenak, 64 eta 44ko bi ikasgela, 63 plazako edukiera duen ikasgela bat.
- 56 plazako edukiera duten 5 ikasgela.
- 30-35 plazako edukiera duten 9 ikasgela-irakaskuntzarako informatika gela 1, 31 ordenagailu dituen, erabilera libreko 2 informatika gela, 55 ordenagailu dituztenak, areto nagusia, batzar aretoa, ikus-entzunezkoen gela, bideokonferentzia gela, irakasleen bulego eta mintegiak, bekadunen bulegoak eta sailletako idazkarien bulegoak; bi atezaintza eta idazkaritza, erreprograma zerbitzua, eta taberna.

Ikasgela guztietako altzariak mugikorak dira eta honako ekipamendu hau dute: ekipamendu informatikoak, interneterako konexioa, ofimatikako eta estatistikako programak; bideo-proiektorea, proiektziorako pantaila eta arbela. Hiru gelatan arbel digital interaktiboa dago.

Traba arkitektonikoei dagokionez, Autoebaluazio Txostenaren arabera, fakultateak ahaleginak egin zituen zailtasunak saihesteko, eta igogailua jarri, arrapak egin eta gaur egun pertsona denak daukate aukera Fakultateko edozein lekutara iristeko.

5.3.

Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzian ematen diren tituluen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira tituluari dagozkion prestakuntza-jarduerak garatzeko eta gaitasunak eskuratzeko.

En el caso de los títulos impartidos con modalidad a distancia/semipresencial, las infraestructuras tecnológicas y materiales didácticos asociados a ellas permiten el desarrollo de las actividades formativas y adquirir las competencias del título.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Ez dagokio

5.4.

Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Los servicios de apoyo y orientación académica, profesional y para la movilidad puestos a disposición del alumnado una vez matriculado se ajustan a las competencias y modalidad del título y facilitan el proceso enseñanza aprendizaje.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Masterra ematen den campusak ikasleentzako zerbitzu anitz jartzen ditu eskuragarri, esaterako; Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (SOU/IAZ), Psikologia Zerbitzua, Praktikak eta Enplegua, Nazioarteko Harreman eta Mugikortasun Zerbitzua eta ezgaitasunak dituzten pertsonentzako Zerbitzua.

Era berean, Fakultateak mugikortasun planak eskaintzen ditu (ERAMUS+, SICUE, Amerika Latina y otros destinos...), unibertsitateen artean harremanak egiteko eta ikasle, zein irakasleak unibertsitate mugikortasun horretan parte har dezaten. Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrean, mugikortasuna guztiz behera egin du; bai beste unibertsitateetatik etortzen direnen kasuan, bai EHU/UPVtik ateratzen direnen kasuan. Azken urteetan ez da egon mugikortasunik. 2018 urteko Jarraipenerako Txostenean argudiatzen den bezala, Masterrak 60 ECTS edukitzera pasatu zenetik, mugikortasuna bultzatzea zailago bihurtu da, masterraren iraupena dela eta.

Azkenik, masterrak berak orientazio akademiko indibiduala eta pertsonalizatua eskaintzen du. Ikasleei tutore bat egokitzen zaie, matrikulazio-prozesuan akademikoki orientatzeko eta prestakuntza plana osatzen laguntzeko. Gainera, ikasleek tutorengana eta Masterreko Batzorde Akademikora jo dezakete, ikasturtean zehar ikasketa-planari eta, hala badagokio, curriculum-ibildidearen antolamenduari buruz sortzen den edozein zalantza edo gorabehera konpontzeko. Horrez gain, masterreko langile akademikoek tutoretza-ordutegiak dituzte ikasleen eskura, GAUR intranetaren bidez.

5.5.

Tituluak klinika/kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.

En el caso de que el título contemple la realización de prácticas externas/clínicas, estas se han planificado según lo previsto y son adecuadas para la adquisición de las competencias del título.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Ez dagokio.

5.6.

Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen-, eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileei, baliabide materialei eta tituluaren biltzen diren laguntza-zerbitzuei dagozkienak gauzatu ditu.

La universidad ha hecho efectivos los compromisos incluidos en la memoria de verificación y las recomendaciones definidas en los informes de verificación, autorización, en su caso, y seguimiento del título relativos al personal de apoyo que participa en las actividades formativas, a las infraestructuras y recursos materiales, y a los servicios de apoyo del programa formativo.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Ez dagokio.

3 ALDERDIA. EMAITZAK / DIMENSIÓN 3: RESULTADOS

6 Irizpidea. IKASKUNTZA EMAITZAK / Criterio 6. RESULTADOS DE APRENDIZAJE

Estandarra: Tituludun pertsonak lortu dituzten ikaskuntza emaitzak egresatua profilarekin koherenteak dira eta Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruaren mailarekin bat datoz.

Estándar: Los resultados de aprendizaje alcanzados por las personas tituladas son coherentes con el perfil de egreso y se corresponden con el nivel del MECES (Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior) de la titulación.

6.1.

Erabilitako prestakuntza jarduerak, irakaskuntza metodologiak eta ebaluazio sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza emaitzen lorpen helburuarekin bat datoz.

Las actividades formativas, sus metodologías docentes y los sistemas de evaluación empleados son adecuados y se ajustan razonablemente al objetivo de la adquisición de los resultados de aprendizaje previstos.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterrean ezartzen diren prestakuntza jarduerak, irakaskuntza metodologiak eta ebaluazio sistemak egokiak dira aurreikusitako ikaskuntza emaitzak lortzeko.

Masterrak duen arrakasta tasa oso altua da, % 99.69 2018/2019 ikasturtean, eta % 100ekoa aurreko urteetan. Era berean, ikasgai guztien gainditze tasa %80 baino altuagoa da.

Master Amaierako Larari buruz, lehenengo matrikulan gainditzen dutenen ehunekoa % 66,67koa da. Ikasleek MALren irakasgai gidan informazio garrantzitsuenak dituzte lana garatzeko: objektiboak eta gaitasunak, MALaren estruktura (zenbat kapitulu eta zelakoak izan behar diren), estandar etikoak eta idatziaren estiloa nolakoa izan behar den jasotzen du.

Azkenik, esan beharra dago, ikasleen asebetetze maila masterrean ematen den prestakuntza eta formakuntzarekin altua dela, 4,10 puntukoa azken ikasturtean (2018/2019) eta aurreko urteetan balore berdinak mantendu dira gutxi gorabehera.

Aipatzekoa da, ere, "Donostia lectures on multilingualism and education" konferentzi edo hitzaldi zikloa. Bertan, bertoko edo nazioarteko ikertzaile eta irakaslek beraien azken lanak eta ikerketa lerroak aurkezten dituzte. Jarduera hauek masterreko ikasleei zuzenduta daude, baina hezkuntza maila guztietako irakasleei eta eleantzasunarekin erlazio duten beste profesionaletan pentsatuta ere. Ikasleen eta beste hezkuntza erakunde eta hizkuntza politikako profesionalen arteko kontaktua hainbat mintegi eta hitzaldien bitartez eskaintzen da. Mintegi eta hitzaldi hauek masterreko batzorde akademikoko kideek antolatzen dituzte.

GOMENDIOA:

Lectures hauek ikasketa planean hobeto txertatzea gomendatzen da, eta, ahal den neurrian, lehen urteetako kopurura bueltatzea, bostpasei lecture urtean.

6.2.

Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.

Los resultados de aprendizaje alcanzados satisfacen los objetivos del programa formativo y se adecúan a su nivel del MECES.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte, eta MECES mailara egokitzen dira.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza titulua amaitzen duten pertsonak, masterrean aurreikusitako gaitasunak lortzen dituzte eta MECES 3 (Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparrua) espero den maila lortzen dute.

Irakasgaietan lortzen dituzten balorazioak oso altuak dira eta gainditze tasaren batez bestekoa % 90an kokatzen da.

7 Irizpidea GOGOBETETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK / Criterio 7. INDICADORES DE SATISFACCIÓN Y RENDIMIENTO

Estandarra: Prestakuntza programaren adierazleen emaitzak diseinuarekin, kudeaketarekin eta tituluaren eskura jarritako baliabideekin bat datoz eta inguru sozialaren eskaintza asetzen dute.

Estándar: Los resultados de los indicadores del programa formativo son congruentes con el diseño, la gestión y los recursos puestos a disposición del título y satisfacen las demandas sociales de su entorno.

7.1.

Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera (ikasturte bakoitzeko ikasle hasi berrien kopurua, graduazio-tasa, uzte-tasa, efizientzia-tasa, errendimendu-tasa eta arrakasta-tasa) egokia da, hain zuzen ere titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin koherentea.

La evolución de los principales datos e indicadores del título (número de estudiantes de nuevo ingreso por curso académico, tasa de graduación, tasa de abandono, tasa de eficiencia, tasa de rendimiento y tasa de éxito) es adecuada, de acuerdo con su ámbito temático y entorno en el que se inserta el título y es coherente con las características del alumnado de nuevo ingreso.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterraren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da eta titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ikasle hasi berrien ezaugarriekin koherentea.

Alde batetik, graduazio tasa, efizientzia tasa, errendimendu eta arrakasta tasa altuak dira. Uzte tasak, aldiz, balore negatiboak batzen zituen, baina ikasketa plana aldatu zenetik eta 60 ECTSko masterra bihurtu zenetik, uzte- tasa Ora jaitzi da.

GOMENDIOA:

Tiluren difusioa egitea gomendatzen da. Nahiz eta ebaluatutako urteetan matrikula-berrien kopurua egonkor mantendu den, azken urtean behera egin du.

7.2.

Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeek gogobetetze-maila egokia da.

La satisfacción del alumnado, del profesorado, de las personas egresadas y de otros grupos de interés es adecuada.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Tituluan parte hartzen dutenen iritziak kontuan izanda, asebetetze maila egokia dela egiazta dezakegu. Hala uste dute ikasleek, irakasleek, egresatuek, AZPkoek eta beste interes-talde batzuek.

Alde batetik, ikasleek tituluarekin daukaten asebetetze maila, gutxi gorabehera urteetan zehar berdina izan da. Ikaslearen

Iritziaren Galdetegian, erabilitako metodologiei buruzko atalean batz-beste iritzia 4,1/5 da. Konkrétuki, lehenego urteetan 4,30koa zen eta azkenengo inkestean arabera 4,10koa. Ebaluazio sistemari buruzko iritzia 4/5 da eta formakuntza jardueri buruzkoa 4,1/5 da, honek egokiak direla adierazten du.

Kolektiboen asebetetze-maila altua bada ere, lehen aipatu den bezala, tituluak asebetetze-inkestak egin behar ditu urtero, kolektibo guztiei dagokienez, eta emaitzak jaso.

GOMENDIOA:

Titulu honetarako gogobetetze-inkesta espezifikoak interes-talde guztiei sistematikoki egitea gomendatzen da.

Gomendatzen da tituluaren irakaskuntzari buruzko informazio berezia ematea, jarraibide hori behar bezala baloratu ahal izateko.

7.3.

Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru zientifikorako, sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.

Los valores de los indicadores de inserción laboral de las personas egresadas del título son adecuados al contexto científico, socio-económico y profesional del título.

BALORAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN:

Tituluaren egreatuen laneratze-adierazleen balioak egokiak dira tituluko testuinguru zientifiko, sozio-ekonomiko eta profesionalerako.

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterreko lan-bideratzearen datuak 2014/2015 urtekoak dira. Enplegu tasa 2015 urteko promozioan % 100koa zen eta aurrekoan % 93,75koa. Hala ere, esan beharra dago, ikasle askok lanean dihardutela ikasketak burutzen dituzten bitartean.

Bestalde, egresatuen asebetetze maila 8,25 puntutan kokatzen da.
